



Arartekoaren 2020IR-826-20 Ebazpena, 2020ko irailaren 17koa. Horren bidez, Urretxuko Udalari gomendatzen zaio berariaz ebatz dezala hirigintza espediente bateko dokumentazioa eskuratzeko eskaria.

Aurrekariak

- Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, Urretxuko Udalak ez ziolako erantzun udalerrri horretako (...)ko lokala egokitzea baimentzeko jarraitutako espedientearen jasotako dokumentazioa eskuratzeko eskariari.

Idatzian aipatu zuenez, bere etxea dagoen eraikin berean kokatutako lokal bat berritzeko obrak hasi zituztela ikusi zuenean, 2019ko azaroaren 5ean, Urretxuko Udalari eskatu zion lokal horren jarduera baimentzeko jarraitutako administrazio espedientearen kopia bat, udal baimenaren terminoen berri izateko asmoz.

Idatzian esandakoaren arabera, bigarren eskaera egin zuen 2019ko azaroaren 25ean, eta jarduera horrek sortzen dituen zaraten ondoriozko arazoak azaldu zituen bertan.

2020ko otsailaren 12an hirugarren eskaria aurkeztu zuen. Bada, horren bidez, errepikatu egin zuen aipatutako lokalean garatzen den jarduera baimentzeko jarraitutako espedientearen kopia bat eskuratzeko eskaera.

Lehenengo eskari hartatik hainbat hilabete igaro ostean dokumentazioa eskuratu ahal izan gabe, kexagileak kexa helarazi zion Arartekoari, bere informazio eskariarentzako berariazko erantzuna lortzeko asmoz.

- 2020ko maiatzaren 11n, Arartekoak Urretxuko Udalari galdetu zion kexagileak egindako eskariei emandako erantzunari buruz.

2020ko uztailaren 27an, Arartekoak Urretxuko alkatearen idatzi bat jaso zuen. Horretan, egindako eskariari erantzuteko gauzatutako jarduketan berri ematen zen. Honako hau zioen, hitzez hitz:





"Udal honetan Arartekoaren laguntzailearen idatzi bat jaso da (ekainaren 8an sartu zen erregistroan, 1467. zenbakiarekin). Horren bidez, jakinarazten zaigu espediente bat izapidetzen ari dela (...)k hala eskatuta, Urretxuko (...)ko lokal bat egokitzeko proiektuari buruzko hirigintzako informazioa eskatzeko egindako eskariari erantzunik eman ez zaiola eta. Ildo horretatik, informazioa eskatu zaigu kexagileak egindako eskariei emandako erantzunari buruz.

Zuen eskariari erantzunez, adierazi behar dizuegu (...)ko lokala egokitzeko proiektua udalak sustatu duela, eta udala bera dagoela udalerriko (...)ren barruan gauzatzen ari diren jarduketan barnean. Horrenbestez, ez dauka beren-beregi izapidetutako jarduera lizentziarik; izan ere, udalak ez dio lizentziarik ematen bere buruari. Kasu zehatz honetan, nahikoa da ziurtagiri tekniko bat, espedientean jasota dagoena, lokalak dagokion jarduera egiteko baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko. Kasu honetan, herriko artisauen elkartearen lanen erakusketari dagokio; izan ere, erakutsitako lan horiek beren tailerretan egiten dituzte. Lokal horrek Urretxuko Udalak sustatutako jarduerarentzako eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzearen ondorioetarako, 1. eranskin gisa gehitu da udal arkitektoak egindako ziurtagiria. Kexagileari emandako informazioari dagokionez, adierazi behar da udal arkitektoak telefonoz eman ziola interesdunari honako gai hauei buruzko informazioa: 1) Lokal horrek izan behar zuen jarduera mota; 2) Horretarako egingo ziren berriztatze obren ezaugarriak, eta 3) Lokal horretan garatuko ziren jarduerari, ordutegiei eta obrei buruz interesdunak helarazitako galdera edo zalantzen argiketa.

Hori gorabehera, adierazi behar da udalak interesdunari informazio hori telefonoz emateaz gain, beranduago, interesdunak hala eskatuta, bilera bat egin zuela alkate jaunarekin. Bilera hori kexa horrekin zerikusirik ez zuten beste gai batzuk argitzeko egin zen, baina (...)k aipatutako lokalari buruz plazaratutako hainbat zalantza argitzeko ere balio izan zuen. Aipatutako bilera 2019ko abenduaren 16an izan zen. Bada, lehenago adierazi bezala, balio izan zuen interesdunari berriz ere emateko lokal horretan garatuko zen jarduerari buruzko informazioa, bai eta une horretan gauzatzen ari ziren obrei buruzkoa ere. 2. eranskin gisa bidali dugu bilera horretako akta, udal teknikariak jaso. Horren bidez, argi adierazten da lehenago azaldutakoa. Gainera, bilera amaitzean (...)k ez zuen beste inolako zalantza edo galderarik





plazaratu. Hala, udal honi iruditu zitzaion interesdunak egindako eskaerari behar bezalako arreta eman zitzaiola, eta ez zela beharrezkoa horri buruzko inolako dokumentaziorik bidaltzea. Aurreko guztia azaldu ostean, eta idatzi honetan adierazitakoaz gain beste zalantzarik izanez gero (...)k aurkeztutako kexari buruz, zure esanetara egongo gara egokitzen jotako gai oro argitzeko.

Kexa hori ikusita, kexaren planteamendua eta Urretxuko Udalak bidalitako informazioa aztertu ostean, Arartekoak honako gogoeta hauek helarazten dizkizu:

Gogoetak:

- 1- Kexak Arartekoari azaltzen dio ez zaiola erantzun Urretxuko (...)ko lokal baten egokitzapena kontrolatzeko jarraitutako espedientearen kopia bat eskuratzeko egindako eskariei. Eskariak 2019ko azaroaren 5ean, 2019ko azaroaren 25ean eta 2020ko otsailaren 12an egin ziren.

Espedientean jasotako informazioari dagokionez, Urretxuko alkateak bidalitako udal jakinarazpenak aipatzen du ziurtagiri tekniko bat dagoela jasota administrazio espedientean. Horrek egiaztatzen du lokalak bete egiten dituela jarduera hori gauzatzeko baldintza teknikoak.

Kexagileak emandako informazioari dagokionez, idatzian adierazten da ahozko komunikazio bidez egin zela, telefonozko elkarrizketa baten bidez eta alkatearekin izandako bilera batean.

Edonola ere, udal idatziak ez du ematen idatziz formalizatutako hiru eskariei bidalitako udal ebazpen baten berri. Eskari horietan honako hau eskatzen zen: lokalaren jarduera baimentzeko jarraitutako administrazio espedientearen kopia bat eskuratzeko.





- 2- Gai horri dagokionez, administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, bermatu behar dute prozedura administratiboan bideratutako eta aurreikusitako izapideen gaineko trazabilitate egokia ematen dela.

Administrazio prozedura orokorrak administrazio jarduera administrazio onaren irizpideen arabera antolatzeko, bideratzeko eta fiskalizatzeko kontuan hartu behar diren jarraibideak ezartzen ditu. Herritarrek administrazio onerako duten eskubideak berekin dakar aurkezten diren idazkien hartu-agiria, ofiziozko bultzada eta azaldutako gaiei arrazoizko epean erantzuteko betebeharra adieraztea.

Berriazko erantzuna eman beharko da, era berean Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusita dagoelarik, eskubideari edukia eman behar zaiolako, erantzun zehatza jakin behar delako eta ebazpena errekurritzeko eskubidea dagoelako, errekurtsioa administrazio organoetan eta organo jurisdikzionaletan jarri ahalko delarik.

- 3- Kasu honetan, adierazi behar da espedienteetako eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskariak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. Artikuluak arautzen dituela, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako antolamendu juridikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

Administrazioen esku dagoen hirigintza arloko informazioa lortzeko eskubidea honako hauetan ere jasota dago berriaz: urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenaren) 5.c) artikuluan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren) 9. artikuluan.

- 4- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea administrazio horren esku dauden eta bere eginkizunak betez egin edo eskuratu diren dokumentuei aplikatu behar zaie, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.





Dokumentazioa eskuratzeko eskubide horren izaera kontuan izanda, administrazioa behartuta dago eskaera horri hilabeteko epean erantzutera, artxiboetan dauden datu batzuk oinarri hartuta. Hala ere, ez dauka zertan materialik prestatu herritarren eskaerei erantzuteko. Hala eta guztiz ere, eskatzaileari dagoen informazioa lortzeko eskubidea baliatzen laguntzeko, udalak eskatzailearen esku jar dezake udaleko sail guztietan dauden eskatzailearen uziaren inguruko dokumentu eta txosten guztien zerrenda.

- 5- Dokumentazioa eskuratzeko moduari dagokionez, beharrezkoa da gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 22. artikulua aipatzea. Honako hau ezartzen du: "Informazioa, ahal dela, elektronikoki eskuratuko da, salbu eta ezinezkoa denean edo eskatzaileak berariaz beste bitarteko bat adierazi duenean".

Informaziorako eskubide horrek berekin dakar dokumentazioaren kopiak lortzeko eskubidea. Hala ere, kopiak egiten badira edo informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera aldatzen bada, ordainarazpenak eskatu ahal izango dira, aplikatu beharreko tasei eta prezio publikoei buruzko legerian aurreikusita dagoen moduan.

Izapidetzeari dagokionez, adierazi beharra dago informazioa eskuratzeko baimentzen edo ukatzen duen ebazpenak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. Artikuluan eta Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan jasotako aurreikuspenak bete behar dituela. Horrenbestez, eskariarekin bat datorren eta modu arrazoituan hartu den erabakia jaso beharko da ebazpenean.

Era berean, ebazpenaren aurka jarri ahalko diren errekurtsioak adierazi beharko dira. Gogorazi beharko da, zehazki, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordean erreklamazio bat jartzeko aukera ezarri duela. Erreklamazio hori, nahi izanez gero, informazioa eskuratzeari lotutako berariazko edo ustezko ebazpen ororen aurka jarriko da, administrazio auzien bidetik aurkaratu aurretik.





6- Kexan azaldutako kasuan, Urretxuko Udalak Arartekoari bidalitako erantzunean ikus daiteke administrazio horrek soilik ahoz jakinarazi duela lokala egokitzeko proiektuari buruzko informazioa.

Aipatzekoa da administrazioaren funtzionamendua arautzen duten printzipioek, hala nola antiformalismoak, fede onak edo bidezko konfiantzak, aukera ematen dutela eskaerak aurreikusitako prozedura espezifikoetara bideratzeko, beste formatu batzuen bidez eskatutako informazioa eskuratzea ahalbidetzen duten formula alternatiboetara, hala nola zuzeneko komunikazioetara, bileretara edo administrazioaren eta interesdunen arteko topaketetara.

Edonola ere, baliabide osagarri horiek ezin dute praktikan abenduaren 9ko 19/2013 Legearen ondoriozko eginbeharrak betetzea mugatu, batez ere, erreklamazio honetan jasotako kasuetan bezala, espedienteko informazioa jasotzeko borondate argia adierazten duenean kexagileak.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

Gomendioa:

Arartekoak Urretxuko Udalari gomendatu dio berariaz erantzuteko informazioa eskuratzeko eskariari eta, hala badagokio, kexagileari bidaltzeko espedientean jasotako informazioa, bat etorriz gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin.

